



EBAZPENA, 2022KO APIRILAREN 5EKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ EBAZTEN DA 2022/2023 IKASTURTERAKO OSASUN ARRAZIOAK DIRELA ETA ZERBITZU-EGINKIZUNAK ETA KLASE-ORDUEN 1/3KO MURRIZKETEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ARGITARATZEA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2022KO OTSAILAREN 1KO EBAZPENAREN BIDEZ ARAUTUTAKOA.

185/2010 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzeko denak, bere 12. Artikuluan ondorengoa dio:

"Irakaskuntzako arrazioak edo norbere osasun-arazo larriak direla-eta, karrerako funtzionarioek berez dagokiena ez den beste ikastetxe batean lan egin ahal izango dute.

Salbuespen gisa, zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango dira odol-ahaidetasuneko lehen mailako senideren batek gaixotasun larria baldin badu, betiere elkarrekin bizi badira eta interesdunaren arreta pertsonala beharrezkoa dela egiaztatzen bada.

Era berean, albuespen gisa, eta gehienez ere bi urtez, zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango zaizkie gaixotasun larria duten pertsonari, betiere hori bidezko mediku-txostenaren bidez egiaztatzen bada. Eginkizun horiek izan daitezke zuzenean eskolak ez emateko.

Zerbitzu-eginkizunak ikasturte osorako izango dira eta interesdunak ezingo die horiei uko egin. Urtero, ikasturtean ikasturteko zerbitzu-eginkizunen deialdiak egingo dira Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez"

71/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, bere 10 k) artikuluan, Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren eskumena zerbitzu-eginkizunak ematea dela ezartzen da.

2022ko otsailaren 1eko ebazpenaren bidez, osasun arrazio larriengatik eta senideen gaixotasun larriengatik deialdia argitaratu zen.

2022ko otsailaren 1eko ebazpenaren zazpigarren atalean ezartzen denaren arabera, deialdi honetan exijitzen diren baldintzak betetzen dituzten eta garaiz eta forman aurkeztu diren eskabideak balorazio batzordeak baloratuko ditu.

Esandako 2022ko otsailaren 1eko ebazpenaren zortzigarren atalak esandakoari jarraiki, Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdiaren behin-behineko zerrendak argitaratuko ditu dagokion Balorazio-batzordeak egindako ebazpen-proposamena oinarri hartuta. Behin-behineko zerrenden aurka, interesdunak aurkeztu ahal izango dituzte alegazioak 5 egun balioduneko epean, zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, bere 54. artikuluan arautu du zerbitzu-eginkizuna, eta lanpostuak betetzeko aparteko era bat bezala taxutu.

Horiek horrela, behin eskaerak aztertuta eta balorazio batzordeak egindako proposamena ikusita, otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak ezartzen duen eskumenaz baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehena.- Hezkuntza Saileko langileak kudeatzeko zuzendariaren ebazpena, 2022/2023 ikasturterako zerbitzu-eginkizunen eta klase-orduaren 1/3ko murrizketen behin-behineko zerrendak argitaratzen dituena argitaratzea. Deialdia 2022ko otsailaren 1eko ebazpenaren bitartez egin zen.

Bigarrena.- Ebazpen honen I. Eranskina argitaratzea. Eranskin horretan 2022/2023 ikasturterako behin-behinean baimendutako zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduaren 1/3ko murrizketak ageri dira.

Hirugarrena.- Ebazpen honen II. Eranskina argitaratzea. Eranskin horretan behin-behinean ez onartutako eskabideak eta ukatzeko arrazioak ageri dira.

Laugarrena.- Ebazpen honek eskaera onartu den ala ez eta zergatik onartu den soilik adierazten du. Behin betiko ebazpenarekin zerbitzu medikoek egindako txostena eskuratzeko aukera emango da, ukapenaren arrazioa ezagutzeko txosten negatiboaren kasuetan.

Bosgarrena.- Erreklamazio horiek egiteko akatsengatik edo akats materialengatik bakarrik egin ahal izango dira, eta ez edukizko akatsengatik. Behin betiko ebazpenarekin txosten mediko negatiboetan emandako arrazioak eskuratzeko aukera emango da, ukapenaren arrazio zehatza ezagutzeko.



Emandako zerbitzu-eginkizunak, oro har, hutsik dauden lanpostuak betetzeko ematen dira, eta interesdunek ikasturte hasierako esleipenera joan behar dute, dagokien txandan, lanpostua aukeratzera, hurrengo kasu honetan izan ezik: Osasun-arrazoi larriengatik edo, salbuespen gisa, behar adina egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik zuzenean eskolak ez emateko zerbitzu-eginkizunak baimentzea.

Hori guztia, deialdiaren zortzigarren atalean ezarritakoa eragotzi gabe.


Seigarrena.- Argitarapena <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus> webgunean egingo da.

ERREKURTSOAK

Deialdi hau argitaratu zuen 2022ko otsailaren 1ko Ebazpenaren 8.3 paragrafoan xedatutakoaren arabera, I. eta II. eranskinetan argitaratutako behin-behineko zerrenden aurka interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte 5 eguneko epean, Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Behin-behineko ebazpen honen aurkako erreklamazioak *Hezigunea* ingurunean horretarako prestatutako **aplikaziaren bidez** egingo dira. Erreklamazio horiek egiteko akatsengatik edo akats materialengatik bakarrik egin ahal izango dira, eta **ez** edukizko akatsengatik.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko apirilaren 5ean.

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA


GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN